Hacia la reconciliación

Baketik ha creado esta sección en su videoteca, con fines exclusivamente educativos y no comerciales, que incluye películas y documentales que promuevan la reflexión sobre la paz y la convivencia en el caso vasco.

Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido para que puedan orientarnos en el camino hacia la reconciliación.

# EL VALOR DE LA AUTOCRÍTICA

## Ficha técnica

TÍTULO ORIGINAL: El valor de la autocrítica.

AÑO: 2015.

DURACIÓN: 63 min.

DIRECCIÓN: Karmelo Vivanco.

REPARTO: Documental.

PRODUCCIÓN: Baleuko.

## Sinopsis

El documental presenta testimonios de personas que han practicado o colaborado con el terrorismo y ahora hacen una lectura crítica de su pasado. Intervienen exmiembros de ETA y KAS, de las Brigadas Rojas de Italia, y del IRA y la unionista UVF de Irlanda del Norte. Exponen la reflexión que les llevó a rechazar el uso de la violencia, su experiencia hacia la reinserción social y su compromiso actual en favor de la paz. Estos testimonios se complementan con las opiniones de víctimas, abogados y expertos sobre la autocrítica y la reconciliación.

## Temática

### Autocrítica, violencia, reconciliación

Autocrítica. La autocrítica es muchas veces un acto de valentía que conlleva dificultades y sacrificios. Pero en el documental se muestran sus efectos sanadores para las víctimas, así como para los propios implicados, a quienes ese ejercicio convierte en activos para la paz.

Violencia. El uso de la violencia, en particular el asesinato, se presenta como el más extremo atentado contra la persona humana, con consecuencias irreparables para las víctimas y devastadoras para el victimario. El testimonio autocrítico no sólo se refiere al ejercicio de la violencia, sino también a los contextos que la propician y legitiman.

Reconciliación. Se reflexiona sobre su significado y la estrecha relación que guarda con la autocrítica. Además, hay una demanda de que se facilite la reinserción social de los presos que rechazan la violencia, como forma de impulsar la reconciliación. También se pone en valor el testimonio de las víctimas que deciden vivir sin odio.

## Cuestionario de preguntas previas a la película

-Sobre la autocrítica. ¿En tu entorno conoces casos de personas, quizás tú misma/o, que hayan apoyado el uso de algún tipo de violencia y ahora vean su propio pasado de forma crítica? ¿A quién o quienes beneficia ese cambio?
-Sobre la violencia. ¿Crees que una persona que ha cometido asesinatos puede cambiar y convertirse en alguien que defiende la paz? De ser así, ¿cómo crees que se produce esa transformación?
-Sobre la reconciliación. En Euskadi es habitual hablar de «reconciliación» ¿Qué es para ti una sociedad reconciliada? ¿Cómo puede facilitarse la reconciliación? ¿Qué sabes de la llamada «vía Nanclares» y de la situación actual de esta vía para la reinserción social de presos?

## Cuestionario de preguntas después de la película

·¿Qué impresión provoca en ti escuchar a personas que han ejercido la violencia hablar de forma tan clara contra lo que ellos mismos fueron e hicieron?

·¿Por qué han cambiado de opinión las personas que aparecen en el documental? ¿Cómo han pasado de pensar que la violencia era legítima, e incluso necesaria, a pensar ahora que no tiene sentido? ¿Qué dificultades han tenido que superar? ¿Qué consecuencias ha tenido para ellos?

·Los testimonios autocríticos del documental se refieren al ejercicio de la violencia, pero también a los contextos que la propician y legitiman. ¿Cuáles son esos contextos? ¿Por qué se considera que propician y legitiman la violencia? ¿En qué medida han cambiado esos contextos?

·En el documental escuchamos a una víctima de ETA hablar sobre la aportación que hacen a la convivencia los presos críticos con la violencia. ¿Estás de acuerdo con esa valoración? Algunas víctimas están en desacuerdo. ¿Qué crees que los lleva a pensar así?

·Los «encuentros restaurativos» entre personas condenadas por terrorismo y víctimas son experiencias en las que la autocrítica se produce cara a cara. ¿Por qué ha sido tan importante para la víctima el encuentro que se relata en el documental?

·En tu opinión, ¿la autocrítica es, como se dice en el documental, una condición necesaria para la reconciliación? ¿Cómo tiene que ser esa autocrítica?

Berradiskidetzea lantzen
Hacia la reconciliación




# EL VALOR DE LA AUTOCRÍTICA

baketik
943-251005
www.baketik.org

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA

## Berradiskidetzea lantzen

Baketik-ek euskal kasuan bakea eta berradiskidetzearen inguruko hausnarketa sustatzeko pelikulak eta dokumentalak barne hartzen dituen atal hau sortu du bere bideotekan, helburu soilik hezitzaile eta ez-komertzialekin.

Pelikula bakoitzak honakoa bezalako gida didaktiko labur bat dakar berekin. Bere helburua pelikulen edukien inguruko azterketa eta hausnarketa erraztea da, berradiskidetzerako bidean orientatzen laguntzeko.

# EL VALOR DE LA AUTOCRÍTICA

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: El valor de la autocrítica.

URTEA: 2015.

IRAUPENA: 63 min.

ZUZENDARIA: Karmelo Vivanco.

AKTORE ZERRENDA: Dokumentala.

EKOIZPENA: Baleuko.

## Laburpena

Dokumentalak terrorismoan aritu edo jarduera horretan lagundu ondoren, beren iraganaren irakurketa kritikoa egiten duten pertsonen lekukotzak aurkezten ditu. ETAko eta KASeko kide ohiak dira, Italiako Brigada Gorrietakoak, eta Ipar Irlandako IRA eta UVF unionistakoak. Indarkeriaren erabilerari uko egitera zerk eraman zituen azaltzen dute, gizarteratzeko esperientzia eta gaur egun bakearen alde duten konpromisoa. Lekukotza horien ondoan, biktimen, abokatuen eta adituen iritzia ere eskaintzen da, autokritikari buruz eta adiskidetzeari buruz.

## Gaiak

### Autokritika, indarkeria, adiskidetzea

Autokritika. Autokritiko izateko, askotan, ausardia handia behar da, eta horrek zailtasunak eta sakrifizioak eskatzen ditu. Baina dokumentalean ikusten da autokritika hori sendagarria dela biktimentzat, baita terrorismoan aritu direnentzat ere, horrela, bakegintzan pertsona aktibo bihurtzen baitira.

Indarkeria. Indarkeria erabiltzea, eta, bereziki, beste norbait hiltzea, da gizakiaren kontrako atentaturik larriena, ondorio konponezinak baititu biktimentzat eta oso larriak biktimarioarentzat. Lekukotza autokritikoak indarkeria erabiltzeari buruz hitz egiten du, baita indarkeria hori ahalbidetzen duten eta ontzat ematen duten testuinguruez ere.

Adiskidetzea. Adiskidetzearen esanahiaren inguruko gogoeta egiten da eta autokritikarekin duen harreman estua azpimarratzen. Gainera, indarkeriari uko egiten dioten presoen gizarteratzea ahalbidetzeko eskatzen da, adiskidetzea bultzatzeko bide bat izan baitaiteke. Gorrotorik gabe bizitzea erabakitzen duten biktimen lekukotzari ere balio handia ematen zaio.

## Filma ikusi aurretik erantzuteko galderak

·Indarkeriari buruz. Zure ustez, hilketak egin dituen norbait alda daiteke eta bakearen alde lan egingo duen norbait bihurtu? Hala izanez gero, nola gertatzen da aldaketa hori?
-Autokritikari buruz. Ezagutzen al duzu zure inguruan indarkeria motaren bat erabiltzearen alde azaldu den norbait, beharbada zu zeu, eta orain iragana modu kritikoan ikusten duena? Norentzat da onuragarria aldaketa hori?
-Adiskidetzeari buruz. Euskadin, ohikoa da “adiskidetzeaz” hitz egitea. Zer da zuretzat gizarte adiskidetua? Nola lagundu diezaiokegu adiskidetze prozesuari? Zer dakizu “Langraitz bideaz” eta gaur egun bide horrek bizi duen egoeraz, presoen gizarteratzean laguntzeko?

## Filma ikusi ondoren erantzuteko galderak

·Zer eragiten dizu indarkeria erabili duten pertsonak hain argi hitz egiten entzuteak haiek izan zirenaren eta egin zutenaren kontra?

·Zergatik aldatu dute iritzia dokumental honetan azaltzen diren pertsonek? Nola igaro dira indarkeria zilegi eta beharrezko zela pentsatzetik orain inongo zentzurik ez duela pentsatzera? Zein zailtasun gainditu behar izan dituzte? Zein ondorio izan du horrek haientzat?

·Dokumental honetako lekukotza autokritikoek indarkeria erabiltzeari buruz hitz egiten dute, baita indarkeria hori ahalbidetzen duten eta ontzat ematen duten testuinguruez ere. Zein dira testuinguru horiek? Zergatik esaten dugu indarkeria ahalbidetzen eta ontzat ematen dutela? Zein neurritan aldatu dira testuinguru horiek?

·Dokumentalean ETAko biktima bati entzun diezaiokegu azpimarratzen zein ekarpen egiten dioten bizikidetzari indarkeriarekin kritiko diren presoek. Balioespen horrekin ados al zaude? Biktima batzuk ez daude ados. Zerk eramaten ditu horrela pentsatzera?

·Terrorismoarengatik epaitu eta zigortuta dauden pertsonen eta biktimen arteko “topaketa konpontzaileetan”, autokritika aurrez aurre egiten da. Zergatik izan da hain garrantzitsua biktimarentzat dokumentalean kontatzen den topaketa?

·Zure iritziz, autokritika, dokumentalean esaten den bezala, beharrezko baldintza al da adiskidetzea lortzeko? Nolakoa izan behar du autokritika horrek?

Berradiskidetzea lantzen
Hacia la reconciliación




# EL VALOR DE LA AUTOCRÍTICA


baketik
943-251005
www.baketik.org



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA